

IRAKASKUNTZA-GIDA 2021/22

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa 3. maila

IRAKASGAIA

25095 - Prebentzioa eta Esku-hartzea Hezkuntzan

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaiaren helburu nagusia litzateke heziketa-testuinguru desberdinetan (familia, soziala, erakundeak, etab.) lan egiteko asmoa duten ikasleei psikologian garatutako eredu teorikoak, oinarrizko kontzeptuak nahiz jarduketa prozedura nagusiak eskaintzea. Bereziki hezkuntza eta garapen pertsonal eta soziala hobetzeko eraginkorrenak azaldu diren horiek, gaur egun bizi diren behar eta erronka berriei egokitzuz eta hezkuntza jarduketak aurre egin beharreko arazoak aurre ikusi eta konpontzeko asmoarekin.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Haurtzaro eta nerabezaroko oinarrizko premiak eta horiek ez asebetetzeak garapenean izan ditzaketen ondorioak ezagutzea.
2. Testuingurune familiarrean, sozialean eta eskolan, garapen egokia sustatzen duten, oinarrizko eta elkarreragile diren testuinguru prozesuak eta elkarrekintzak, identifikatzeko gai izatea.
3. Hezkuntza-testuinguruetan (bai familian, bai gizartean eta baita eskolan ere), garapen psikologikoa optimizatzeko programak, konpetentziak eta aplikatzeko estrategiak ezagutzea.
4. Hezkuntza-sistemaren barne, orientazio-prozesuek lan munduan nahiz profesionalean duten zeregina ezagutzea.
5. Errendimendu akademikoa optimizatzera zuzendutako esku-hartze proposamen desberdinak ezagutzea.
6. Testuinguru eta garapen aro desberdinetako ikaskuntza zailtasunekin erlazonaturik dauden behar psikoedukatioak identifikatzeko gai izatea.
7. Ikaskuntza zailtasunei erantzuna ematen dioten esku-hartze psikoedukatio boko proposamenak diseinatzeko gai izatea, testuinguru formal eta ez formalean: familia, adinkide eta eskolari egokituak.
8. Esku-hartze programa bat egoki aurkezteko eta justifikatzeko gai izatea, euskarri tekniko desberdinekin publikoki defenditu ahal izateko moduan.
9. Lanbidearen kode deontologikoa eta horrek esku-hartze edukatibo arloan duen aplikapena ezagutzea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

- 1.- Haurtzaro eta nerabezaroko oinarrizko beharrak eta hauen erantzun familiar, eskolar eta sozialak.
- 2.- Jarduketa lehendarra eta bigarrendarra lantzen duten eredu teoriko garrantzitsuenak
- 3.- Garapenaren sustapena familia arlotik.
- 4.- Garapenaren sustapena adinkideen eta eskolaren arlotik.
- 5.- Aholkulari nahiz orientatzailearen funtzioak.
- 6.- Prebentzioa eta garapena hezkuntza arloan.
- 7.- Bizitzarako orientazioa edo orientazio bokazionala.
- 8.- Ikaskuntza zailtasunak eta behar psikoedukatioak.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren helburu nagusia, ikasleei heziketa-testuinguru desberdinetan lan egiteko gaitasuna ematen dizkieten oinarrizko ezagutzak eta konpetentziak eskaintzea litzateke. Eskola magistraletan eredu teoriko desberdinekin eta hainbat testuinguruneekin (familia, soziala, eskola, .ea) harremana duten eduki desberdinak edo-ta oinarrizko irizpideak azalduko dira. Gehien bat jarduketa lehendarra eta bigarrendarrari bideratutako teknikak landuko dira. Eskola praktikoak, mintegiak eta tailerrak eremu zehatz batean esku-hartze programa bat diseinatu eta garatzen ikastea da. Batez ere lan saioak izango dira non arazo-metodologia erabiliz irakasleak urrats desberdinak diseinatzen lagundu, feedback-a eskaini, material desberdinak proposatu eta laguntza eskainiko duen programaren diseinoan. Arazo/kasua metodologiaren bidez nahi da ikasleak populazio/arazo baten oinarrizko beharrak antzemateko gai izatea eta honi aurre egiteko programa bat diseinatzen ikastea

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	32	6	18		2		2		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	48	9	27		3		3		

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 60
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 5
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 5

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgai honetan talde bakoitzeko bi irakasle daude, bakoitza irakasgaiaren %50aren arduradun izango delarik.

Zati bakoitzari dagokion azterketan lor daitekeen puntuaziorik altuena 3 puntu dira. Praktiketako dossierrean lor daitekeen puntuaziorik altuena 2 puntu dira. Horrela, gehienez lor daitekeen puntuazioa 10 da

Bi kasuetan ebaluaziorako irizpideak ondorengoak dira:

a) Idatzizko froga

Ezagutza teorikoak azken azterketa teoriko baten bidez ebaluatuko dira, ohiko deialdian izan eta arlo teoriko osoa barne hartzen du. Bertan ezagutza teorikoak nahiz praktikoak sar daitezke.

b) Praktika dosierra

Lan honek esku-hartze programa baten diseinua, lanketa eta aurkezpena barneratzen ditu, baita ikasgelan egindako lan praktikoen txostenak.

Irakasgaia gainditzeko zati bakoitzeko azterketa eta dosierra gainditu behar dira. Beraz, azken kalifikazioa lortzeko irakasgaiaren lau zatietan lortutako noten batuketa egingo da, batuketa hori burutzeko nahitaezkoa izango delarik lau zatiak gainditzea.

OHIKO DEIALDIA

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren zatiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, lehenengo zatiari dagokionez 4. astea baino lehenago egin beharko du eta bigarren zatiari dagokionez 9. astea baino lehen, lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

DEIALDIARI UKO EGITEA

Deialdiari uko egiteak azken kalifikazioa <<aurkezteke>> izatea suposatzen du.

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZ OHIKO DEIALDIA

Irakasgaia ohiko deialdian gainditzen ez duten ikasleek, hautatutako ebaluazio sistema gorabehera, eskubidea izango dute ezohiko deialdiko azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketa eta jardueretara aurkezteko.

Ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeko sistema bakarra azken ebaluazioa izango da.

Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak definituta dauden ikaskuntzaren emaitzak ebaluatzeko eta neurtzeko behar beste azterketa eta ebaluazio jarduera izango ditu, emaitzak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatu ahal izateko. Ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta deialdi horretan ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute. 5. eta 6. deialdian azterketa egiten duten ikasleek, galdera irekien bidez, gaitegi teorikoa nahiz praktikoa barne hartzen duen froga bat egingo dute.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

1. ZATIA:

* Reizabal, L. eta Acha, J. (2012): “Kontzeptuzko oinarriak, helburuak eta gaitasunak”; in L. Reizabal eta J. Acha Hezkuntza sozioemotionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea. UEU, Bilbo,9-23.

* Reizabal, L. eta Ulanga, A. (2012): “Haurtzaroko eta nerabezaroko inarrizko premien sailkapena eta haiek ez

asebetetzeak ekar ditzakeen ondorioak”; in L. Reizabal eta J. Acha Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea. UEU, Bilbo, 25-38.

* Reizabal, L. (2012): “Prebentzioa eta esku-hartzea arrisku sozialean dauden haur eta nerabeekin”; in L. Reizabal eta J. Acha Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea. UEU, Bilbo, 153-182

* Reizabal, L. (2012): “Prebentzioa eta esku-hartzea familian”; in L. Reizabal eta J. Acha Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea. UEU, Bilbo, 39-87.

*Reizabal, L. eta Sarrionandia Peña, A. (2012): “Hezkuntza sozioemozionala eskolaren eta beste hurrekiko elkarrekintzaren testuinguruetan”; in L. Reizabal eta J. Acha Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza zailtasunak: hezkuntza-testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea. UEU, Bilbo, 89-139.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Garaigordobil, M. (2005): 4-12 urte bitarteko haurren garapenerako kooperazio eta sormen Jolasak, Ibaizabal, Bilbo.

CEAPA (2000): Educación emocional desde la familia. CEAPA, Madril.

Aierbe, A. (2008). Esku-hartze psikopedagogikoa garapenaren nahasteetan. Euskara eta Eleanizatasuneko Errektoreordetzaren sare argitalpena EHU/UPV: Bilbo.

Darretxe, L. (2012). Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari arreta.

Bilbo: Euskara eta Eleanizatasuneko Errektoreordetzaren sare argitalpena EHU/UPV.

Eusko Jaurlaritza (2012). Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016. Gasteiz: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Grañeras, M., Díaz-Caneja, P. eta Gil, N. (2011). Actuaciones de éxito en las escuelas europeas. Bartzelona: Ministerio de Educación.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Darretxe, L. eta Zenitagoitia, E. (2008). Hezkuntza bereziaren oinarri pedagogikoak. Bilbo: UEU.

De Miguel, M. (2006). Métodos y modalidades de enseñanza en la educación superior. M. De Miguel, Metodologías de enseñanza y aprendizaje para el desarrollo de competencias (17-26 orr.). Madril: Alianza.

Echeita, G. (2007). Educación para la inclusión o educación sin exclusiones. Madril: Narcea.

García-Vidal, J. eta González-Manjón, D. (2001). Dificultades de aprendizaje e intervención psicopedagógica. Madril: Eos.

González Manjón, D. (1995). Adaptaciones curriculares. Guía para su elaboración. Malaga: Aljibe.

INCLUD-ED: Strategies for inclusion and social cohesion in Europe from education (2007). Working Paper: Effective Educational Practices in Europe. INCLUD-ED.

Jiménez, F. eta Vilá, M. (1999). De la educación especial a la educación a la diversidad. Malaga: Aljibe.

Miñan, A. (2003). Conceptos básicos para la adaptación del curriculum.

A. Miñan (Koord.). Necesidades educativas especiales y adaptación del curriculum (17-22 eta 33-35 orr.). Granada: Nativola.

Novak, J. D. (1996). Hezkuntzaren teoria eta praktika. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. (Itzultzaileak: I. Iñurrieta eta L.

Oihartzabal) Santana, L. E. (2003). Orientación educativa e intervención psicopedagógica. Madril: Ediciones Pirámide.

Ziarsolo, A. (1999). Haur Hezkuntza eta espezialistak. Hik Hasi, 40. alea.

Aldizkariak

•<http://www.hikhasi.eus/>

•<http://www.ehu.es/ojs/index.php/psicodidactica>

•http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_pu

blicaciones_innovacion/eu_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100002e_Pub_EJ_Index_e.pdf
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100011e_Pub_EJ_Plan_diversidad_e.pdf
<http://unesdoc.unesco.org/images/0012/001211/121117s.pdf>
<http://www.pangea.org/>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://casel.org/>
<http://www.ceapa.es>
<http://www.cuatro.com/supernanny/>
<http://www.etxadi.org/eu/inicio.html>
<http://moodle5.ehu.es/course/view.php?id=114>
<http://www.ppb.ehu.es/s0227-haezihm/es>
<http://www.slideshare.net/anabelcor/teora-de-la-mente-cmo-trabajarla-paso-a-paso-completo>
<http://www.triplep.net/glo-en/home>
2. ZATIA:
<http://www.hikhasi.eus/>
<http://www.idonline.org/>
<http://www.greatschools.org/special-education.topic?content=1541>
<http://nichcy.org/>
<http://www.psicopedagogia.com/>
<http://astridnataly.galeon.com>
<http://problemasaprendizaje.galeon.com>
<http://jcpintoes.en.eresmas.com/index05.html>
<http://www.ariadneproject.org/>
<http://www.tesisenred.net/TDX-0129107-131542/>
<http://www.asesoramientoprofesional.org/>
<http://www.orientaeduc.com/>
<http://www.orientaweb.info/orientaweb/index.htm>
http://www.iestiernogalvan.com/departamentos/orientacion/test/76_Cuestionarios_OP/opestu.htm
http://www.iestiernogalvan.com/departamentos/orientacion/test/76_Cuestionarios_OP/opguia.htm

OHARRAK

Ezohiko egoera.

Datorren ikasturtean zehar, Covid-19 pandemiaren ondoren ebaluaketa ezpresentziala egin beharko balitz, irakaskuntza taldeak ondorengo ebaluaketa irizpideak erabiliko ditu:

-Azterketa teorikoa: % 60 ko zama du. Test motakoa izango da eta bi zati izango ditu, biak 20 itemez osatutakoak. Zati bakoitza egiteko 30 minutu izango dituzte ikasleek. Erantzun okerrak penalizatu egin dute. Zati bakoitza gainditzeko 10 etik 5 puntu lortu beharko dira. Kontuan izanik zati teoriko bakoitzak 3 puntuko balioa duela, azterketa gainditzeko 1, 5 puntu lortzea beharrezkoa izango da zati bakoitzean.

-Partziala: Lehenengo zatia bukatu bezain pronto, 8 astean, ikasleen erantzun anitzeko testa egiteko aukera izango dute.

-Praktikak modu jarraituan egin eta ebaluatuko dira. Irakasleak hainbat eduki eta data proposatuko ditu, ikasleek lauhilekoan zehar egin eta egelara igotzeko, helburu horrekin disenatutako karpitetan

-Azterketa praktikoa: Praktika egin ez dutenek soilik egin beharko dute azterketa praktikoa. 6 galdera irekien bidez ebaluatuko dira praktikak, hiru galdera zati bakoitzari dagokionez. Kasu honetan, azterketaren %50 nahikoa izango da gainditzeko, alegia zati bakoitzean 2 puntu.

Bi froga hauek online egin beharko dituzte dekanotzak proposatutako egun eta orduan. Arazo informatikorik izanez gero, behin irakasleari arazoaren berri eman ordenagailuan azaltzen den arazoaren argazkia bidaliz, irakaslearekin beste ordu bat adostuko dute.

Irakasleek Blackboard Collaborate plataformaren bidez, jarraibideak eta ikasleen zalantzak azalduko ditugu azterketa hasi baino 10 minutu lehenago. Saio osoan plataforma hau irekita egongo da zalantzak erantzun ahal izateko.

Nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa <<aurkezteke>> izan dadin

5. eta 6. Deialdian, arestian ezohiko deialdian azaldutako irizpide berdinak aplikatuko dira.